




**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUS JAIO
ZAIGU**

A SAIOA
HAURREN KATEKESIA PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



**JESUS, MESIAS,
JAUNA JAIO ZAIGU
(LK 2, 11)**

1. Helburua

- Eguberri aldian Jesus gure munduan, gure etxean eta gure bihotzean jaiotzen dela ospatzen dugula ikusi.

2. Edukiak

- KATEKESIA ALDERDIA. Eguberrietan, Jesusen Jaiotza ospatzen dugu.
- HITZA ETA OTOIZA ALDERDIA. Jesusen Jaiotzaren kontaketa.
- ELKARTEA ALDERDIA. Eguberrien elkarte ospakizuna.
- OSPAKIZUNA ALDERDIA. Elkarrekin goaz Belenerantz. Abendu – Gabon aldia.

3. Saioa

- Haurren talde katekesirako saioa A parrokian

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

A SAIOA HAURREN KATEKESIAPARROKIAN



Motibazioa

- Eguberrietan, Jesus gure munduan, gure etxean gure bihotzean jaiotzen da.



Azpimarrak

- Eguberrietan, Jesusen jaiotza ospatzen dugu.
- Mundu hobea eratzearen alde zerbait egiten dugun bakoitzean jaiotzen da Jesus munduan.
- Gutariko bakoitzak zerbait egin dezake Jesusen jaiotza onartzeko.



Idea nagusiak

- Jesusen jaiotzaren kontaketa (**Lukas 2, 1-20**) da saioaren ardatza.
- Belenen jaiotzen den Jesusengan, Jainkoa "gure antzeko gizaki" bihurtzen da. Lagun bakoitzarengana hurbiltzen da aska batean jaiotzen den Haurraren "pobretasunaren" bitartez.
- Eguberrietako gertaera ez da besterik gabe gogoratu egiten dugun jazoera historikoa; hurkotasan, harrera, maitasun, zuzentasun, elkartasun... zeinu eta ekintza bakoitzean eguneratu egiten den gertaera da.
- Argietatik, abestietatik, apaingarrietatik, kontsumotik... harago, Eguberri aldiko ospakizuna egundoko berri da kristautentzat: Jainkoa "gurekin da".



Saioaren garapena begi-kolpe batean

Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

Orduan, bat-batean, egundoko distira zuen argiak zerua argitu zuen. Argiaren erdian, zutunik, aingerua zegoen. Ozen hitz egin zien artzainei esanez: "Berrionak! Inoiz eman dizueten berririk onena! Zuontzat eta mundu osoarentzat! Gaur, Belenen, zuon erregea jaio da!

"Zure Lehen Biblia", Giltza. 292 - 301 orria

Bideoak

Abesteko, egin klik irudiaren gainean:
"Olentzero rockero"



Abesteko, egin klik irudiaren gainean:
"Una estrella sin nombre"



Jarduera

- "Eguberrien historia"

Egin klik irudiaren gainean, "La historia de la Navidad" bideoa ikusteko



Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Zeure eskuez






Ezinbesteko lagungarriak

- Sehaska eta Jesus Haurraren irudia.
- Eskuaren kartulinazko silueta bana haurrentzat.
- Eguberriak gogorarazten dizkiguten gauzez, argazkiez, apaingarriez betetako kutxa.

Garrantzitsua da aldez aurretik saioaren dinamika ulertzeko eta saioan behar izango dugun guztia prestatzeko astia hartzea.



Saiorako gida

Katekistarentzat...

Katekesiko gela girotzeko, hutsik dagoen sehaska erdian jarriko dugu. Saioa lau unetan banatuko dugu:

1. Unea. Agurra eta aurkezpena.
2. Unea. Gaiaren azalpena, bideoak eta abestia.
3. Unea. Nork bere egin eta konpromisoa hartu.
4. Unea. Adierazpena eta laburpena.



Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Katekistak harrera egingo die hurrei. Agurra eta ongi etorria.



1. Urratsa. Katekistak aurreko saioa gogoratu eta gaurkoa harekin lotuko du. Aurreko saio horretan ikus genuen Jesus izeneko adiskidea dugula, berezia dela eta, apurka-apurka, hobeto ezagutu nahi dugula.



2. Urratsa. Zer gertatzen ari da gure inguruan? Argiak, apaingarriak, prestaketak..., ikus ditzakegu han eta hemen. Katekistak, era batera edo bestera, Eguberriak gogorarazten dizkiguten gauzez edo argazkiez betetako kutxa eraman dezake. Kutxa hori erdian jarri eta taldekide bakoitzak bat aukeratu eta zer gogorarazten dion, zertarako erabiltzen den, zer irudikatzen duen azal dezala. Haurren azalpenak hartuko ditugu abiapuntutzat gaia landu eta saioan aurrera egiteko.



Bigarren unea. Gaiaren azalpena

Eguberriak, Jesusen Jaiotzaren jai nagusia, ospatuko dugula azalduko du katekistak. Jesusen guztion adiskide izan nahi du eta, horregatik, bere jaiotza jai handia da denontzat eta ilusioz eta gogoz prestatzen dugu. (Abendu aldiko egutegia jarraitzen bada, aipatu).



3. Urratsa. **Badakizue nola gertatu zen Jesusen jaiotza?** Ez zen ez argazki-kamerarik ez bideorik, ez egunkaririk... ezta telebistarik ere! Horregatik, ez dugu Jesusen jaiotzaren eguneko argazkirik, gaur egun zuetako bakoitzak berea duen bezala, baina hainbat gauza dakigu gertaera hartaz, Jesus ezagutu zutenek kontatu eta idatzi egin zutelako ez ahazteko. **Ezagut dezagun istorio hori!**



4. Urratsa. **Lukas 2, 1-20** ebanjelioko pasartea irakurri.

- Jaiotzaren egokitutako kontaketa baliatu gaitzeko: Giltza arg., "Zure Lehen Biblia", 292-301 or., eta irakurketa kartelaz eta irudiez osatu.
- Edo, "La abubilla cuenta la historia de la Navidad" bideoa ikus dezakegu.

**Egin klik irudiaren gainean
bideoa ikusteko:
"La historia de la Navidad"**





5. Urratsa. Katekistak elkarrizketan jardungo du taldearekin, istorioa ulertu dela egiaztatzeko. Honako galderak egin ditzake:

- Zeintzuk dira protagonistak?
- Zer gertatzen zaie Jose eta Mariari?
- Nora doaz eta non jaiotzen da Jesus?
- Zer dela-eta jaiotzen da korta batean?
- Nor doakio bisitan?



Hirugarren unea. Nork bere egin eta konpromisoa hartu



6. Urratsa. Ez dela aspaldi gertatu zen eta bakarrik gogoratu egiten dugun istorioa azalduko du katekistak, hau da, Jesus Eguberrialdi bakoitzean jaiotzen dela berriz ere, gurekin egon nahi duela eta gure mundura etorri nahi duela guri zoriontsuago izaten laguntzeko. Nahiz eta orain "geure begiez" ezin ikusi, "bihotzez" senti dezakegu. Gure etxean, gure munduan, gure bihotzean jaio nahi du. Gure familia hurreratu nahi du. **Prest gagoz Hari harrera egiteko?**



7. Urratsa. Mariak eta Josek Belenen ez zutela ostaturik aurkitu azalduko die katekistak hurrei, galdera egiteaz batera: **"Aurkituko ote du lekurik, gaur, gure etxean?"**. Zer egin dezakegu Jesus mundu hobean, politagoan jaio dadin? Geure eskuez onartu, ferekatu... egin dezakegu. Geure eskuez lan egiten dugu, gauzak eraiki eta mundua hobetu. Adieraz dezagun, eskuez baliatuz, zer egin dezakegun Jesusen jaiotza prestatzeko. Lekua egiten diogu triste dagoen norbaitengana hurbildu eta alaitu egiten dugunean; inor bakarrik uzten ez dugunean; zerbait egitea kostatzen zaion norbaiti laguntzen diogunean; gauzak banatzen ditugunean eta eskuzabalak garenean...



8. Urratsa. Haur bakoitzak Jesusi harrera egiteko, Eguberrialdian bere etorrera prestatzeko, mundu hobean sortzen laguntzeko zer egin dezakeen idatziko du paper edo kartulinazko eskuan.



Laugarren unea. Landutako jaso eta laburbildu



10. Urratsa. Idatzi ondoren, haur bakoitzak zer idatzi duen esango du eta Jesusen sehaskaren ondoan utziko du eskua. Esku guztiak jarrita daudenean, katekistak Jesus Haurraren irudia jarriko du sehaskan, geure konpromisoaren bidez, geure eskuez, jaio egin den Jesusi harrera egiten diogula nabarmenduz. Isilunea egingo da gero eta bakoitzak, bihotzez hitz egingo diogu Jesus Haurrari.



11. Urratsa. Elkarrekin abestu (bat aukeratu).

Abesteko, klik egin irudiaren gainean.



Abesteko, klik egin irudiaren gainean.

